

GLOSARIOA

Askatasun demokratikoak

Hainbat eskubideren multzoa: bizitza eta pertsonaren osotasun fisikoa, independentzia judiziala, legearen aurreko berdintasuna eta epaiketa justua, adierazpen askatasuna, prentsa askatasuna, elkartzeko askatasuna, biltzeko askatasuna, irakasteko askatasuna, kultu askatasuna, mugitzeko askatasuna... Eskubide eta askatasun horiek guztiak adierazpen batean idatziz jasotze hutsetik harago, askatasun demokratikoez hitz egiten dugunean haien berme efektiboaz ari gara, eskubide zibil eta politiko guztiak aitortzeaz (giza eskubideak zoru orokorra izanik), eskubide horiek eragozten dituzten edo haien urraketa elikatzen duten arkitektura juridiko eta administratibo oro bertan behera utziz. Askatasun demokratikoen ezarpena KAS Alternatibaren lehen puntuan jasota zegoen.

Giza eskubideak

Gizakiari berez dagozkion eskubideak. Orixek honela itzuli zituen: “Gizonak gizonarenganako zorrak”. XX. mendera arte, giza eskubideei eskubide naturalak edo berezko eskubideak esaten zitzairen. Estatu Batuetako 1776ko Konstituzioa idatzi zen arte ez zen egon esamolde horren esanahiaren adierazpen zehatzik. Estatu Batuetako Lege Nagusiak honela zioen: «Gizaki guztiak berdinak jaiotzen dira eta Jainkoak ezin kenduzko eskubide batzuk eman dizkie, hala nola bizitzarako eta askatasunerako eskubidea». Frantziako 1789ko Iraultzak Gizakiaren eta Herritarraren Eskubideen Adierazpena gehitu zuen. Lehengo gai berberak jasotzen zituen eta Estatuaren esku uzten zuen eskubide horiek bermatzeko ardura. Hala ere, giza eskubideen nazioarteko adierazpenak askoz geroago iritsi ziren, XX. mendearen erdialdean, NBERen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalarekin (1948). Zehaztapen handirik gabeko adierazpen lausoa zen eta ez zekarren inolako konpromiso juridikorik estatu sinatzaileentzat, baina nazioartean hedatuta zegoen gogo baten isla zen eta etorkizun konprometituago bat iragartzen zuen. Aurrerago, nazioarteko hainbat konbentziok edukiz bete zuten Nazio Batuen adierazpena: Emakumearen Eskubideei buruzko Konbentzioa, Aberrigabeen Eskubideei buruzko Konbentzioa, Errefuxiatuen Estatuturako Konbentzioa, Torturaren Aboliziorako Konbentzioa, UNESCO, Irakaskuntzako Diskriminazioaren kontrako Konbentzioa, OIT (bortxazko lanen abolizioa), Arrazagatiko Diskriminazioa Desagerrarazteko Konbentzioa, etab. Aldi berean, eskualde mailako hainbat erakundek tankera horretako beste adierazpen batzuk osatu zituzten, haien artean Europako Kontseilua, OEA (Amerika) eta OUA (Afrika), besteak beste. Adierazpen horietan guztietan gai berberak jasotzen dira: lana, giza eskubideak, tortura, arrazakeria...

Eskubide politikoak

Mundu anglosaxoian eskubide zibilak ere esaten zaie (AEBetako Konstituzioa eta 1960ko hamarkadako manifestazioak abiapuntu), eta mundu frankofonoan eskubide zibikoak. KAS Alternatibatik aurrera guk “askatasun demokratikoak” esaten diogun hori guztia da. Askatasun

indibidualak nahiz kolektiboak. Adierazpen askatasuna, biltzeko askatasuna, elkartzeko askatasuna, erlijio askatasuna, sexu orientaziorako askatasuna, autodefentsarako askatasuna (AEB, Australia, Txekia, Kanada eta Britainia Handia), sufragio askatasuna... NBEren eskubide zibilei buruzko Adierazpenean (1966) askatasun klasikoak aipatzen dira (bizitzarako eskubidea...), baina, horrez gain, hainbat gauza debekatzen dira: tortura, esklabotza, bortxazko lana...

Eskubide sozialak

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean (1948) jasota dauden eskubideetako batzuk. Eskubide ekonomikoekin nahasi ohi diren arren, eskubide sozialek honako eremu hauek biltzen dituzte: lana, lanaren deribazioak (soldata, erretiroa, gizarte segurantza, amatasuna...), etxebizitza, hezkuntza, osasuna, elikadura... Mendebaldeko konstituzioetan txertatuta daude baina era askotara interpretatzen dira. Haien jatorria Estatuaren teoria marxista da: teoria horren arabera, Estatuak herriaren beharrak bete behar ditu. Gaur egun hainbat eztabaidagai daude eskubide sozialen inguruan: zerk bereizten dituen eskubide politiko edo zibikoetatik; eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen atalean txertatu behar al diren; edo izaera sozialeko eskubide berriak gehitu behar ote diren (ekologikoak, bioetikoak, elikadura burujabetza...).

Erakunde politikoa

Kontzeptu hau alderdi politikoekin lotzen dugun arren, prozesu politiko bat behartzeko edo aldarazteko gai diren entitate guztiei aplikatu beharko litzaieke (erakundeei, lobbyei, defentsa taldeei, sindikatuei...). Adibide batzuk jarriko ditugu kontzeptua ulertzen laguntzeko: erakunde politikoak dira EAJ, LAB, ETA, enpresaburuen zirkulua, Opus Dei eta CNI. Guk, zehazki, politikaren arloan -baina ez halaberharrez instituzioen edo hauteskundearen arloan- zuzenean jarduteko sortu eta pentsatzen diren erakundeak izendatzen ditugu kontzeptu horren bidez. Alderdi politikoaren sinonimoa izan zitekeen, baina guk izaera politikoa duten erakunde guztiei aplikatu izan diegu, eta azken boladan gero eta gehiago antolakundea darabilgu, "alderdi" kontzeptuak harrera txarra baitauka mugimendu politiko baten barruan.

Erakunde soziala

Bi esanahirekin erabili ohi da. Lehen esanahia akademizistagoa da: taldearen, norbanakoen eta nazioaren edo, hala badagokio, estatuaren arteko harremanei dagokien egitura soziala. Beraz, esanahi horren arabera soziologiaren parte bat da. Hala ere, ohiko erabileran beste esanahi bat nagusitzen da: eremu sozialean aritzen diren antolakundeei, sindikatuei, ingurumenaren aldeko mugimenduei, kolektibo sektorialeiei eta tankera horretako erakundeei aplikatzen zaie, oro har.

Eragile politiko edota soziala

Jatorriz Britainiar Inperioaren funtzionarioak definitzeko erabiltzen zen kontzeptu modernoa. Gaur egun, "aktore" terminoaren sinonimo gisa erabiltzen da, eta horrek esanahi indibidual nahiz kolektiboa ematen dio. Erakunde politiko edo sozial guztiak eta haien kideak eragile

(aktore) politikoak dira. Beraien jarduerak prozesuaren protagonista edo motor bihurtzen baditu, “subjektu” kontzeptua erabil liteke “eragile” kontzeptuaren ordean.

Mugimendu politikoak

Politikaren arloan aritzen den eta alderdi politikoak gainditzen dituen talde soziala (edo talde sozialak). Ezker abertzale soziologikoak, hainbat erakundez osatuta dagoen arren, mugimendu politiko zabal gisa jokatu du historiako hainbat fasetan. Nagusiki, erreferente ideo-politiko indartsua izan da eta bere erakundeak nahiz ingurunea gainditu dituen imajinario kolektibo bat sortu du. Gutxi dira denboran zehar beren siglak gorde dituzten erakundeak eta, beraz, esan dezakegu Ezker Abertzalea erreferente kolektibo bat dela alderdi edo erakunde jakin baten erreferentea baino gehiago.

Herri mugimendua

Definitzen zaila da. Mundu anglosaxoiano oso erabilera mugatu du. Zehazki, Herriaren Mugimendua adierazteko erabiltzen da, eta hainbat proposamenen jatorria izan zen deskolonizazioaren garaian eta beste matxinada batzuen aroan. Lehenago, fronte esperientzia batzuen jatorria izan zen Espainian eta Frantzian (Fronte Popularrak). Berez, izaera herritarra duen mugimendu politiko bat da, baina gaur egun haren interpretazioa lausotu egin da, eskuineko hainbat talde termino horretaz baliatzen direlako. Nolanahi ere, Ezker Abertzalean erabili ohi den adieran, mugimendu sozialen definizioarekin bat datozen herri mugimenduei aplikatzen zaie, mugimendu horiei esaten diegu Herri Mugimendua, beti ere bere egitasmo propioa eta bere jardura autonomoa izaten dutenean edota bere jarduna aldaketa soziopolitiko sakon batekin lotuta ulertzen duten kasuetan (eta ez soilik aldarrikapen mugatu bat, hobekuntza zehatz bat egungo sistemaren edo instituzioen aldetik bilatutakoa, hauetarako azken urteotan hedatu den gizarte mugimendua litzateke definizio bereizlea). Haien artean sartzen dira mobilizazioa bideratutako antolakuntza edo parte-hartze eredu herritarrak jarraitzen dituzten antolakundeak eta egiturak eta eremu politikoan nahiz sozialean borroka partzialak garatzen dituzten tokiko, eskualdeko, nazio mailako edo nazioarteko kolektiboak, mota askotakoak (mugimendu feministak eta emakume mugimenduak, mugimendu ekologistak eta antinuklearrak, bakearen aldeko eta gerraren aurkako mugimendu antimilitaristak, globalizazioaren aurkako mugimendu internazionalistak, mugimendu indigenak, eskubide zibilen aldeko mugimenduak, kultur eta hizkuntza eskubideen aldeko elkarteak eta mugimenduak, auzo elkarteak...).

Mugimendu soziala

Zerbait kudeatzeko, protestaren bat antolatzeko edo prozesu politiko bat bideratzeko orduan alderdi banaketa klasikoa gainditzen duen ekimen eta antolamendu horizontala izan ohi duen taldea. Euskal Herrian honako hauek izan dira mugimendu sozial bizienak eta handienak (Herri Mugimenduaren adierazpenak): preso politikoaren eskubideen aldekoak, kutsaduraren eta energia nuklearraren kontrakoak (Erandio, Lemoiz), azpiegitura handien kontrakoak (Leitzarain, Itoitz, AHT...), zerbitzu militarren kontrakoak eta Espainiako armadarekiko intsumisioaren aldekoak, euskarazko irakaskuntzaren aldekoak (ikastolak, AEK, Sortzen Ikas Batuaz...), erabakitze

eskubidearen aldekoak (Gure Esku Dago)...Hauek denek Herri dimentsioa barnebildu izan dute, eta dute, bai nazio perspektiban edota eraldaketa sakon baten premiatik begiratuta. Hala ere, tokian tokiko edo eskualde mailako beste asko ere egon dira. Orokorrean, sorrarazi zituzten kausak desagertzen direnean desegiten diren mugimenduak edo mugimendu sozialak dira.

Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua

Ezker Abertzale osoari erreferentzia egiten zion esamoldea. Herri Batasunak honela definitu zuen 1998an: «Era generiko eta global batean, Euskal Herri osoaren Nazio Burujabetza Osoa lortzea helburu nagusitzat daukaten Euskal Langile Herriko sektore zabalen adierazpidea edo adierazpideak, korrante sozial edo politikoa. Komite Antinuklearrak, Amnistiaren Aldeko Batzordeak, AEK, Elkartasun Internazionalistako Batzordeak, LAB, ANV, Egin...Horiez gain, KAS eta Herri Batasunarekin batera Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua osatzen duten beste erakunde asko ere aipa genitzake».

Ezker Abertzalea

Helburu estrategikotzat edo azken helburutzat Independentzia eta Sozialismoa daukaten erakunde politikoen multzoa. Iraganean, ETA, KASEko erakunde guztiak eta HB. Gaur egun, SORTU, LAB eta ERNAL. Garai batean, organismo sektorial batzuk ezker abertzalekotzat jo izan ziren (errepresioaren aurkakoak, ekologistak, euskaltzaleak, internazionalistak), haien kide gehienak Ezker Abertzaleko kide ere bazirelako. Hala ere, mugimendu horiek beste helburu estrategiko batzuekin jaio ziren (ez Ezker Abertzalearen helburu berdinekin), eta beren barnean abertzaleak edo sozialistak ez diren militanteak ere bilduko zituzten herri mugimendu zabalak izateko bokazioa zuten.

Programa politikoa (Proiektu politikoa)

Erakunde edo mugimendu politiko batek bere borrokaren bidez erdietsi nahi dituen helburuen artikulazio laburtua, argia eta zehatza. Programak zehazki jasotzen du erakunde politiko horrek gizarteaz duen ikuskera eta epe laburreko aldarrikapenak biltzen ditu. Leninen arabera, "programak ebatzi gabe utzi behar du bitartekoen auzia; borroka egiteko aukera eman behar die erakundeei eta bitartekoak hautatzeko aukera alderdiaren kongresuei, taktika kongresuek finkatzen baitute".

Helburu estrategikoak

Programa edota Proiektu politikoa formulatzeko beste era bat. Azken helburuak dira, hau da, ildo estrategikoak bilatzen dituen helburuak. Ezker Abertzalearen helburu estrategikoa Euskal Herriaren askapen nazionala eta eraldaketa soziala da. Horretarako, Estatu independente, birbatu, sozialista eta euskaldun bat eratzeko lan egin du hasiera-hasieratik. Aspaldi ez dela, feminismoa gehitu die bere helburu estrategikoei.

Helburu taktikoak

Helburu estrategikoak lortzera iritsi baino lehen erdietsi nahi diren helburuak (helburu hurbilak). Helburu estrategikoak lortu aurreko etapan edo etapetan kokatzen dira eta haien funtzioa da helburu estrategikoen lorpena erraztea indar metaketaren eta aliantza politika kontsekuente baten bidez. Helburu taktikoak lortzeko, Proiektu eta Prozesu politikoari begirako baldintza objektiboak eta subjektiboak sortu behar dira eskubide nazional eta sozialen arloko gutxieneko oinarri batzuen gainean; langile klaseak eta herri sektoreek beren interesen aldeko egitura politiko, sozial eta sindikalak antolatzea bultzatu behar da; gizartearen sentimendu eta kontzientzia mailak handitu behar dira parte-hartzea eta erabaki kolektiboak bultzatzeko; kontraboterea sortzeko ekimen instituzionalak eta programak bultzatu behar dira; eta kontraesan propioak (barne mailakoak) nahiz inposatuak (kanpotik eragindakoak) kudeatu behar dira, barne mailako eztabaida eta kritika (autokritika) markoetan nahiz kanpora begirako posizionamenduaren edo jarduera politikoaren arloan kontraesanak gainditu arte.

Gutxienekoen programa

Fase zehatz baterako helburu taktikoak adierazteko beste era bat. Gehienekoen edo helburu estrategikoen programaren aldean, gutxienekoen programak honako hau jasotzen du: borroka-estadio berrietarako baldintza objektibo berriak sortzeko erronka taktikoak edo epe laburreko zeregin zehatzak. Erakunde politiko orok argitu egin behar du zein den une politiko bakoitzean gainditu behar den oztopo nagusia edo epe laburrean erdietsi behar den helburua gehienekoen edo azken helburuen programarantz aurrera egin ahal izateko. Erakunde politiko bat ez bada gai zeregin zehatzak zein diren ikusteko, hau da, epe laburreko gutxienekoen programa argi ez badauka, oso litekeena da bere azken helburuen alde borrokatzen jarraitu ahal izateko aukera oro galtzea. Garai batean, Ezker Abertzaleak KAS Alternatiba planteatu zuen gutxienekoen programa gisa, eta geroago Alternatiba Demokratikoa,...

Estrategia politikoa

Eremu politikoan, marko jakin bat aldatzeko proiektuaren izaera definitzean datza. Neurri batean, ez dago inolako desberdintasunik kontzeptu militarren eta kontzeptu zibilaren artean, kontzeptuaren eszenifikazioa da aldatzen den bakarra. Karl Von Clausewitz jeneral prusiarrak esan zuenez, «gerra ez da politikaren jarraipena baizik, nahiz beste bitarteko batzuek baliatzen den». Askapen borroka batean, esaterako, hauxe da strategiaren funtsa: borrokarako erabil daitezkeen bideak eta metodoak aztertzea, egokienak aukeratzea, eta norberaren nahiz etsaiaren indarrak neurtzea. Adibide horrekin jarraituz, estrategia zehatz bat aukeratzeko orduan ezinbestekoa da ondo aztertzea errealitate nazionala, egitura soziala, komunitatearen intentsitatea eta kontraesanak eta tokiko nahiz nazioarteko indar korrelazioa. Horrekin batera, ondo aztertu behar da etsaia, haren indarra, indar gidariak, aliatuak eta egitura politiko eta militarra. Hori guztia aztertu ondoren, helburuak lortzera bideratutako erabaki politikoa hartu behar da, hau da, askapen proiektua zehaztu behar da. Eta, horretarako, ildo estrategiko bat definitzen da.

Taktika politikoa

Estrategia kontzeptua bezalaxe, termino militarra da berez, baina erabilera zabalagoa du. Helburu zehatz batera bideratutako operazio guztien ordena eta sintonia da. Politikoki, estrategia nola lor daitekeen erakusten du. Hala, taktika pragmatismoaren eremuan mugitzen da, eta estrategia, aldiz, ildo nagusien eremuan. Lotura estua dute elkarren artean, eta askotan nahasi egiten dira, ez haien eduki teorikoagatik, baizik eta praktikaren arloko deformazioengatik. Taktikak malgutasuna eskatzen du, eguneroko gertaeren erdian mugitzen delako. Hala ere, sarri askotan, horrek oker handi bat eragiten du: estrategia edo azken helburuak ahaztea. Hori gertatzen denean, taktismoan edo koiunturalismoan erortzen da, hau da, unean uneko gertaeren intentsitatea nagusitzen da eta horren arabera jokatzeko da. Beste muturrean, antzeko oker bat egin daiteke, hau da, estrategismoan erortzea: gizartean gertatzen diren mugimenduei jarraipenik egiten ez zaienez, erakunde politikoa gizartetik urruntzen da eta proiektu emantzipatzailean eragiteko ahalmena galtzen du. Koiunturalismoa eta estrategismoa oso oker ohikoak dira eta adibide ugari aurki ditzakegu gure inguru hurbilean.

Zuzendaritza politikoa (organoak eta funtzioak)

Zuzendaritza politikoa helburuak ezartzeaz eta helburu horiek lortzeko bitartekoak finkatzeaz arduratzen da. Bereizi egin behar dira zuzendaritza politikorako organoak eta zuzendaritza politikoaren funtzioak. Zuzendaritza politikorako organoak giza ekipoak dira. Erakunde, mugimendu edo prozesu politiko baten barruan, haien esku uzten da zuzendaritza lanaren ardura kideak edo militanteak mintzatu ezin direnean edota kongresuen, asanbladen nahiz eztabaiden arteko aldietan, besteak beste. Zuzendaritza politikorako organoak Mugimendu Politiko osoarenak izan daitezke (ezker abertzalea, adibidez), edo mugimendu horretako erakunde bakoitzak bere zuzendaritza politikoa izan dezake. Beste era batera esanda, zuzendaritza estrategiko baten barruan zuzendaritza politiko sektorialak egon daitezke. KAS horren adibide nabaria izan zen: zuzendaritza estrategiko sektorial bat arlo bakoitzean eta euskal nazio askapenerako prozesuaren zuzendaritza orokor bat. Funtzioei dagokienez, zuzendaritza politikoa zeregin militantea da eta honetan datza: ekinbide politikoa aurrera eramatea ildoak finkatuz eta erabakiak hartuz edo partekatuz, betiere beste batzuk politikoki orientatzeko helburuarekin. Oro har, zeregin hori abangoardiako erakunde edo alderdiei lotuta dago eta bere arriskuak ditu, hala nola dirigismoan erortzea edo mugimendu sozialak transmisio uhal bihurtzea. Askotan gertatu da hori, zuzendaritza politikoaren kontzeptua oso era okerrean aplikatzearen ondorioz. Zuzendaritza politikoa egitea “nabarmendu gabe egotea” da, eta, batez ere, ente protagonista (Mugimendu Soziala, Fronte Politikoa...) ez baidatzeko eta erabakitzeke lehentasunezko markotzat hartzea.

Zuzendaritza estrategikoa

Aukerak formulatu, ebaluatu eta hautatzen dituen zuzendaritza. Horretarako, analisiak (mehatxuak, indarguneak, aukerak, ahulguneak) eta diagnostikoak egin behar ditu, hala kanpokoak nola barnekoak (norberaren eta besteen indar erlazioa). Termino militarretan “estatu nagusi” bateratuaz hitz egin ohi da, eta prozesu iraultzaileetan edo nazio askapenerako prozesuetan prozesuaren aginte guneaz (jarraibide eta ildo nagusi guztiak finkatzen dituen

Zuzendaritza zein zapalkuntzari aurre egiteko gaitasun duen guneaz, edonolako egoera emanda -diktadura gordinena,....-).

Zuzendaritza taktikoa edo zuzendaritza teknikoa

Bi zeregin nagusi betetzen ditu askapen prozesuaren barruan: funtsean politiko-estrategikoak ez diren atalak zuzentzea eta koordinatzea, eta une taktikoaren eraginkortasuna bermatzea. Zuzendaritza taktiko sektorialak egon daitezke jarduera politiko eta sozialaren zenbait arlo eta esparrutan. Taktika espezifikoak garatzea eskatzen duten erabaki politikoak gauzatzeko eta transmititzeko beharrezkoak diren lanabes guztiak erabiltzeaz arduratzen da.

Tempus politikoa

Une politikoa, hau da, ekonomian koiuntura esaten zaion hori. Edozein erakunde politikorentzat ezinbesteko zereginak dira une edo koiuntura politikoa etengabe ebaluatzea, bere jarduera une bakoitzeko testuinguru sozial eta politikoa kokatzea eta, hori guztia kontuan izanik, ekintza politikorako lehentasunak ezartzea. Labur esanda, egoera aztertzea haren arabera jokatzeko.

Fase politikoa

Politika prozesu gisa ulertuta, prozesu horren baitako denbora tarte bat. Fase bakoitzak bere helburu zehatzak ditu, bere markoak... Marxismoan, faseek azken helburura daraman mailaz mailako bide bat osatzen dute, eta fase batzuetan klasearteko edo trantsiziozko aliantzak egiten dira. Era berean, faseek nazio askapenerako prozesura daraman bidea osatzen dute. Batzuetan, fase politikoak barne egoera bati erantzuten dio (prozesu iraultzailean, antolakuntza prozesuan, konponbideprozesuan...), etabeste batzuetan kanpo egoerabati (inperialismoa, neoliberalismoa...). Fase politikoaren diagnostikoa zuzentasun politikoaren oinarria da. Antifrankismoan, esaterako, bi fase egon ziren: erbesteko borrokaren fasea eta barne erantzunaren fasea. Beste adibide bat jartzearren, historikoki Ezker Abertzaleak bi fasetan definitu zuen Erreforma Politikoa: lehen fasea 1975ean hasi eta 1982an (edo 1981ean) bukatu zen, otsailaren 23ko estatu kolpearekin (1981), PSOEn lehen gobernuarekin eta Amejoramentuarekin; bigarren fasea orduan hasi zen eta oraindik ez da amaitu.

Ziklo politikoa

“Fase” terminoaren oso antzekoa. Nagusiki,aldi edo etapa ekonomikoak adierazteko erabiltzen da. Horregatik, kontzeptu osoa erabili ohi da: Ziklo Politiko Ekonomikoa (ingelesez, PBC edo Political Business Cycle). Batez ere hauteskunde prozesuen aurrean eragile politikoek eragindako kanpo fluktuazioak dira. Izan ere, hauteskundeak hurbiltzen direnean, neurri ekonomikoak (fiskalak, monetarioak...) hartu ohi dira gobernuan dagoen alderdiarentzat botoak lortzeko asmoz. Hala, hauteskunde prozesuek politika ekonomikoa baldintzatzen dute, eta ziklo politikoek bat egiten dute hauteskunde zikloekin (lau urtez behin) edo alderdi batek gobernuan irautearekin (hauteskunde ziklo bat edo gehiago). Beste zentzu batean, ziklo politikoak ekonomikoa ez den

elementuren batek definitutako aldi politiko bati egiten dio erreferentzia (borroka moldeak, esaterako). Besteak beste, honako hauek izan daitezke ziklo politiko bat definitzen duten ezaugarriak: konfrontazio armatua, intifada, apartheid politika...

Etsai estrategikoa

Etsai nagusia, beti ere helburu estrategikoen kontra jardungo duena beraren presentzia bera arriskuan jartzen dutelako. Gizarte kapitalista batean, langileen etsai estrategikoa kapitala da (kapitalistak); gizarte kolonial batean edo nazio zapalkuntzako gizarte batean, berriz, Inperioa edo nazioak itotzen dituen estatua. Euskal Herriaren etsai estrategikoak Espainiako eta Frantziako estatuak eta bi estatu horietako klase kapitalistak dira.

Etsai hurbila

Kontraesan nagusiaren arabera identifikatzen da, hau da, une politiko zehatz batean mugimendu politiko batek garatzeko eta bere helburuetarantz aurrera egiteko aurkitzen duen oztopo nagusiaren arabera. Funtsezkoa da etsai hurbila zuzen definitzea, indar guztiak borroka horren inguruan bildu behar direlako eta ahalegin guztiak etsai hori garaitzera bideratu behar direlako. Une politikoaren arabera, etsai hurbilak forma ezberdinak har ditzake. Hala, diktaduretan erregimen diktatoriala bera da garaitu beharreko etsai hurbila, kontraesan nagusia diktaduraren eta demokraziaren artean ematen delako. Hala gertatu zen 1975ean eta erreforma/haustura prozesuan. 2015eko Nafarroan, “erregimena” zen garaitu beharreko etsai hurbila, hura bota gabe ezinezkoa izango zelako ezein aurrerapen sozial edo nazional. Termino orokorragoetan, euskal herritarren etsai hurbilak jakobinismo errepublikarra eta konstituzionalismo espainiarra dira, konfrontazioa Euskal Herriarentzat demokratikoak ez diren terminoetan planteatzen jarraitzen dutelako.

Taktikaren malgutasuna

Taktikaren malgutasuna funtsezkoa da irabazteko. Leninek oso argi esan zuen: “aurre egin behar zaie alderdi burgesekiko edo beste edozein alderdirekiko konpromisoak errefusatzan dituzten desbideratze ezkertiarrei...”; eta are urrunago joan zen, honakoa planteatuz: “...zentsugabea da alde aurretik uko egitea politika aldaketa orori, edo norberaren etsaien arteko interes-antagonismoak (behin-behinekoak badira ere) baliatzeari, edo aliatu posibleekiko edozein adiskidetze edo akordiori (akordio horiek iragankorrak, inkontsekuentek edo zalantzakorrak badira ere”, “...hori ulertzen ez dutenek ez dute inola ere ulertu ez marxismoa ez sozialismoa... eta hori berdin-berdin aplikatu ahal zaio botere politikoa eskuratu aurreko aldiari nahiz ondorengoiari”.

Aliantza politika

Aliantza politikak bi helburu izan ditzake: borrokari indarrak gehitzea, edo sektore zalantzatiak neutralizatzea, azkenean etsaiekin bat egin eta aldaketaren indarren kontrako borrokan inplika ez daitezen. Ezinezkoa da pentsatzea norberaren indarrak soilik aski direla helburuak lortzeko.

Horregatik da beharrezkoa aliantza politika egoki bat garatzea, sektore berriak gehitzeko eta etsai hurbilen nahiz etsai estrategikoen kontrako borrokan txertatzeko.

Aliatu estrategikoak

Errealitate sozial eta produktiboan betetzen duten lekuagatik prozesu politikoaren etapa jakin batean langile klasearen ondoan borrokatzeko interesa izan beharko luketen gizarte sektoreak, hala nola klase herritarrak. Era berean, aliatu estrategikotzat hartu ahal dira logika horri erantzuten dioten eta prozesu politikoa burutu arte gure bidelagunak izan daitezkeen erakundeak edo sektore antolatutak.

Aliatu taktikoak

Etsai hurbil baten kontra borrokatzeko prest dauden baina azken helburua lortu arte borrokan jarraitzeko prestasunik ez duten indar sozialak edota erakundeak. Bidelagunak dira une politiko zehatz bateraino eta indar horiekin elkartu ahal gaituzten interesak ahulak izan ohi dira. Izan ere, helburu hurbila lortutakoan (diktadura bat eraistea, erregimena botatzea, Maltzagara iristea...), kontraesanak sortuko dira hortik aurrera helburu kontrajarriak izango ditugulako. Aliatu taktikoekiko elkarlana behin-behinekoa izaten da, etsai nagusiak dakarren oztopo komuna gainditu bezain laster bukatzen da.

Aliatu potentzialak eta errealak

Erakunde politiko bat gai izan behar da unean uneko indar korrelazioaren azterketa egokia egiteko. Gainera, indar korrelazio hori bere helburuen alde aldaratzeko baldintzak sortzen asmatu behar du. Horretarako, funtsezkoa da aliatu errealak eta aliatu potentzialak ondo bereiztea. Fase bakoitzerako aliatu potentzialak helburu estrategiko guztiekin edo haietako batzuekin ados egon daitezkeenak dira. Aliatu errealak, aldiz, dagoeneko helburu guztiak edo haietako batzuk lortzeko borrokan murgilduta daudenak dira.

Aliantza politikoak

Zenbait erakunde edo talde politikok beren adosguneak edo interes komunak balioan jartzeko asmoz denboraldi baterako eratzen duten batasuna, epe labur, ertain nahiz luzekoa. Aliantza politikoek forma ezberdinak har ditzakete, Akordio Politiko baten bidez nahiz iraupen luzeko edo laburreko antolakuntza formulazioen bidez.

Akordio edo itun politikoak

Programa zehatz baten inguruko aliantza puntuala. Batzuk erakunde gisa antolatzen dira, eta beste batzuk ez, baina guztiek akordio programatiko bat adosten dute koiuntura politiko zehatz bati edo politikaren arloko gai sektorialeiei erantzuteko (euskara, politika fiskala, eskubide

sozialak, gatazkaren ondorioak...). Hona hemen adibide batzuk: Donostiako Itun Errepublikarra (1931), Lizarra-Garaziko Akordioa, Aieteko Akordioa, Ostiral Santuko Akordioa Irlandan..., edo, alderantzizko zentzuan, Koroarekiko Itunak, Itun Estatutarioa, Moncloako Itunak, Ajuria-Eneako Ituna, Itun Antiterrorista, edo askatasunen aldeko eta terrorismoaren aurkako ituna (PP-PSOEk Lizarra-Garaziko Akordioari emandako erantzuna). Beti egon dira arazo politiko edo sozialak itunen edo konpromisoen bidez konpontzeko joera aldeztzen duten indar politikoak (EAJ, adibidez).

Bloke soziala eta Fronte politikoa

Bloke soziala esaten zaie akordio puntualen gainetik epe luzeagoko zereginetarako eratzen diren “klase koalizioei” (interes desberdinak eta anitzak dituzten indar sozialak). Mota askotakoak izan daitezke: parlamentarioak, intsurrekzionalak, gobernukoak... Bloke soziala osatzen duten sektore sozialei dagozkien alderdiak eta erakunde sozialak programa komun baten inguruan egituratzen direnean Fronte politikoa sortzen da.

Koalizio politikoa

Hainbat alderdi politikok hauteskundeetara elkarrekin aurkezteko eratzen duten batasun taktikoa. Helburua bozkak bateratzea da. Gehienetan, koalizioa osatzen duten indar guztien artean adostutako buruzagi alderdigabeak aukeratzen dira, edo ordezkagarritasun-hautagarritasun kupoak ezartzen dira alderdi bakoitzaren pisu eta eragin erreala araberak. Hauteskundeak igarota, koalizioaren garabideak askotarikoak izan daitezke: hautetsiak alderdien artean banatu bezain laster koalizioa desagitea; hauteskunde zikloko lau urteak igarotakoan koalizioa bukatutzat ematea; koalizioa beste hauteskunde ziklo baterako berritzea; edo izaera taktiko-estrategikoko batasun politiko egonkorragoa bilakatzea (joera ezberdinak barnebiltzen dituen Alderdi Politikoa, Herritar Batasuna, Fronte Zabala). Hona hemen koalizio politikoen adibide batzuk: hasierako Euskadiko Ezkerra (EIA-EMK), urte askotan zehar EAJ-EA, EA-Aralar, Aralar-IU eta Nafarroa Bai koalizio utilitaristak, eta azken aldi honetan Bildu, Amaiur eta EH Bildu.

Herritar Batasuna

Ezkerreko hainbat alderdiren (eta sindikaturen) koalizioa. Haren helburu nagusia ezkerren hegemonia elektoral eta politikoa lortzea da eta era askotara egituratu izan da historian zehar. 30eko urteetako Fronte Popularren ildotik (Espainiako Bigarren Errepublika, Frantziako Hirugarren Errepublika), Herritar Batasunak izaera egonkorra ematen dio aliantza mota horri. 1970ean, haren bertsiorik definituenak -eta ezagunenak-, Txileko presidentetzara eraman zuen Salvador Allende. Txileko Unidad Popular koalizioak hainbat alderdi biltzen zituen (Erradikala, Sozialista, Komunista, MAPU, Ezker kristaua...) eta CUT zentral sindikalaren babesa ere bazuen. Alderdi politiko bakoitzak bere ordezkaritza zeukan Unidad Popularreko Batzorde Politikoan. Koalizioa egituratzeko, berriz, Unidad Popularreko Batzordeak (CUP) eratu ziren herriz herri. Koalizioaren jarraitzaile independenteek ere parte hartzen zuten batzorde horietan, alderdietako militanteekin batera. Hego Euskal Herriari dagokionez, 1978an, Altsasuko Mahaia eratu ondoren, ezker abertzalearen baitako hainbat joera hauteskunde koalizio batean elkartu ziren, HERRI BATASUNA-UNIDAD POPULAR izenarekin. HASI, LAIA, ESB eta ANV alderdiek ordezkaritza

zuzena zeukaten Mahai Nazionalean eta, haiekin batera, ospe handiko independenteak gehitu ziren Herri Batasunaren Laguntza Batzordean (Telesforo Monzon, Miguel Castells, Jose Luis Elkoro, Jon Idigoras, Jokin Gorostidi, Periko Solabarria, Francisco Letamendia, Xabier Sanchez Erauskin, Jose Angel Iribar...). Tokian tokiko laguntza batzordeetan eta herri batzarretan alderdietako militanteak eta independenteak biltzen ziren. Herri Batasunaren oinarri ideologikoak Kas Alternatibako puntu programatikoak ziren. HB hauteskunde koalizio gisa jaio zen, helburu zehatz hauekin: 1979ko udal hauteskundeetara aurkeztea, autodeterminaziorik gabeko konstituzio bati uko egitea eta Nafarroarik gabeko estatutu bat errefusatzea. Horregatik, hasiera-hasieratik, HBren beste helburu nagusietako bat herri mobilizazioa eta mobilizazio politikoa bultzatzea izan zen. Euskal Herri librea, birbatua, sozialista eta euskalduna helburutzat zeukaten herri sektoreen eta langile klaseko sektoreen arteko aliantza iraunkor gisa definitzen zuen bere burua. Geroago, Euskal Herriko esperientziaren arrakasta ikusirik, CUP sortu zen Katalunian (Candidatura d'Unitat Popular). 1987an jaio zen, Moviment d'Esquerra Nacinalista (MEN) eta Moviment de defensa de la Terra (MDT) elkarturik. Urte horretatik aurrera, udal hauteskundeetarako hautagaitzak aurkeztu zituen hainbat herritan. Hasieran hedapen desorekatu samarra izan zuen, baina milurteko berriarekin batera goraka hasi zen, ENDAVANT eta MDT (orain Poble Lluire) mugimendu politikoek eman zioten bultzadari esker. 2003an, 2007an eta 2011n, CUP udal hauteskundeetara aurkeztu zen, bera bakarrik edo beste indar batzuekin batera. 2011n 72 hautagaitza aurkeztu zituen, eta 4 alkatetza lortu. 2012ra arte, CUP inoiz ez zen aurkeztu Kataluniako hauteskundeetara. Lehen aldi horretan, botoen %3,5 eta 135 diputatutik 3 eskuratu zituen. 2015ean, berriz, 163 udal hautagaitza aurkeztu zituen, eta Kataluniako Parlamenturako hauteskundeetan botoen %8,2 eta 135 diputatuetako 10 lortu zituen. Bukatzeko, beste Herritar Batasun batzuk aipatuko ditugu (hauek askoz ere arrakasta txikiagoa izan dute, sostengu politiko pluralik ez dutelako). Izquierda Unidak orain dela gutxi (2015ean) bultzatu duen Unidad Popular koalizioa (botoen %3,6 lortu zituen). 2015ean Grezian sortu zen eta porrot egin duen Herritar Batasuna; Syrizen eszisiotik sortu zen, Panagotis Lafazanisek bultzatuta eta Yanis Varoufakisen babesarekin; eurotik ateratzea defendatzen zuen eta botoen %2,8 besterik ez zituen lortu. Uruguain, berriz, Uruguako Fronte Zabalarekin ados ez zeuden sektore batzuek Uruguako Herritar Batasuna sortu zuten 2013an. Botoen %1,1 baino ez du lortu eta oso ideologia markatua duten hamar bat alderdi txiki biltzen ditu: Movimiento 26 de Marzo (MLN-Tupamaroen eszizio marxista-leninista), Partido Comunista Revolucionario (maoista), Partido Bolchevique del Uruguay, Refundación Comunista, Intransigencia Socialista, Asamblea Popular, Partido Obrero y Campesino del Uruguay (Poycu)...

Fronte Zabala

Definizioz, Fronte Zabala batek ez du zentzurik bere barnean alderdi edo sektore politiko ezberdinak biltzen ez baditu. Hori da, hain zuzen ere, Fronte Zabalarik bizitasuna eta birtualitatea ematen dion elementua: sektore horien ibilbide politiko ezberdinak eta, batez ere, haien arteko ezberdintasun ideologiko sakonak, alderdi edo sektore bakoitzak bere ekarpen politiko eta elektoralak gehitzen baitu. Fronte Zabalak bi bando pluraletan (ezkerra/eskuina, progresismoa/kontserbadurismoa) polarizatuta dauden eta gehiengoko hauteskunde sistema bereziak dituzten gizarteetan eratu ohi dira, eta haien erronka gobernua eskuratzea da (presidentetza, gobernua bera, udal agintea...), gizartea eraldatzeko beharrezkoak diren aldaketak kudeatu ahal izateko. Fronte Zabalak ez dira akordio estrategikoen inguruan eratzen, eta are gutxiago akordio ideologikoen inguruan. Gutxieneko akordio programatikoen inguruan eratzen dira, eta akordio programatiko horiek etengabe eguneratzen dira. Hauteskunderik begira eraginkorrak izan ahal

izateko, Fronte Zabala osatzen duten alderdiak indartsuak izan behar dira, eta alderdi bakoitzak bere politika propioa eta bere diskurtsoa garatu behar ditu, beste alderdi batzuekin ez ezik Frontea bera osatzen duten gainerako alderdiekin ere lehiatuz. Gakoa hau da: alderdi guztien adostasuna duten gauzak (Akordio programatikoa) Fronte Zabala gisa lantzea eta gainerakoak (guztien adostasuna ez dutenak) alderdi bakoitzak bere kabuz lantzea eta garatzea. Fronte Zabala arrakastatsua Urugaikoa da. 1973an jaio zen, baina 1994an eratu zen ezkerreko alderdien benetako koalizio edo elkargune aurrerakoi gisa, eta 1999tik aurrera gero eta indar handiagoa hartu zuen, urte horretan barne hauteskunderen sistema (primarioak) ezarri baitzen Urugain. 1999an, Fronte Zabala diputatuen %40 lortu zituen, eta hortik aurrera hirutan eskuratu zuen errepublikako presidentetza. Gaur egun, hau da Fronte Zabalaren osaera: MPP (Movimiento de Participación Popular- Tupamaros), Asamblea Uruguay, Partido Socialista, Partido Comunista, Vertiente Artiguista, Alianza Progresista, Partido Obrero Revolucionario, Partido de la victoria del Pueblo... Frontea osatzen duten indar politiko gehienak ezkerreko eremukoak dira (sozialismoa, sozialismo autogestionarioa, sozialismo demokratikoa, komunismoa, trotskismoa eta beste marxismo batzuk), baina, korrante sozialistak nagusi badira ere, zentro-ezkerrean kokatzen diren posizio ideologiko abertzaleak ere biltzen ditu bere baitan, hala nola ezker demokrata-kristaua, nazionalismo desarrollista, liberalismo aurrerakoa eta sozialdemokrazia.

Abertzaletasuna

Sabino Aranak 1896an asmatutako neologismoa. “Aberri” eta “zale” terminoak elkartu zituen “abertzale” eta “abertzaletasun” hitzak sortzeko. Denboraren poderioz, euskal hiztegiek eta euskarari buruzko arauak “aberi” eta “abertzale” hitzak jaso zituzten. Naziak eta frankistak “nazionalista” terminoaz jabetu zirenez geroztik, Euskal Herriko giro politikoetan “abertzale” hitza soilik erabiltzen hasi zen. ETAren V. Biltzarraren ostean “ezker abertzalea” terminoa sortu zen, eta 90eko urteetan Espainiako estatuko komunikabideak nazionalistak eta abertzaleak bereizten hasi ziren, hau da, EAJ batetik eta independentistak nahiz Herri Batasunako militanteak bestetik. Abertzalea denak euskal estatu independentea nahi du, baina ez nazionalismoaren zentzuan.

Bloke independentista

Prozesu independentista aurrera eramateko helburuarekin hainbat sektore sozialek eta haien erakunde politiko eta sozialek osatzen duten klasearteko bloke zabala. Bloke plurala izan ohi da eta haren asmoa beti ez da hauteskunderen begirako eskaintza bateratu bat egitea, baizik eta hauteskunderen nahiz mobilizazioen arloko eskaintza ezberdinak prozesu independentistaren zerbitzura jartzea. Ez da nahasi behar Bloke forma hartzen duten baina nagusiki alderdi politiko gisa funtzionatzen duten beste batasun batzuekin. Azken horien adibide batzuk jarriko ditugu: BNG (Bloque Nacionalista Galego), Bloc Québécois (independentista eta sozialdemokrata, Quebecoko formulazio federala) edo Vlaams Belang (Flandriako Vlaams Blok bloketik sortutako alderdi independentista eskuindarra, arrazista eta xenofoboa).

Prozesu politikoa

Helburu zehatz batera bideratutako jarduera ordenatuen multzoa. Prozesu politikoen helburuak askotarikoak izan daitezke: aldaketa, haustura, gatazken konponbidea... Euskal Herriaren kasuan, gatazkaren ondorioak gainditzearen edota helburu politiko askatzaileetarantz aurrera egitearen sinonimo gisa erabiltzen da. Ez da nahasi behar Proiektu politikoarekin. Izan ere, Proiektu politikoa ezker abertzaleak prozesu hori garatzeko proposatzen dituen ildo ideologikoak eta praxia izango lirateke.

Prozesu independentista

Estatu berri bat sortzeko helburuarekin estatu batetik edo beste nazio batetik banantzen den nazio batek independentziarantz hartzen duen bidea. Kasu guztietan, testuinguru politikoari loturik dago. Amerikako prozesu independentistak, esaterako, XIX. mendeko askapen gerrei loturik egon ziren; Asiako eta Afrikako herrialdeetakoak Bigarren Mundu Gerraren amaierari eta deskolonizazio prozesuei loturik; eta Europako herrialde batzuetakoak inperioen desagertzearen (Lehen Mundu Gerraren aurretik) edo Berlingo Harresiaren erortzeari (XX. mendearen amaieran). Prozesurik garrantzitsuenetan mota askotako proposamenak egin dira, hala nola aldebakartasuna edo autodeterminazio eskubidearen gauzapena. Aldebakartasunak estatu berriaren aitortze mugatua ekar dezake, nazioarteko aliantzen arabera. Autodeterminazio eskubidea, berriz, sufragio unibertsalaren bidez edo instituzioetako gehiengoaren erabakiaren bidez gauzatu ahal da. Mendebaldeko munduan, azken erreferenteak Quebec, Eskozia eta Kataluniako prozesu independentistak dira. Hiruretan kontsulta desafiatazailerak egin dira, batzuk toleratuak eta beste batzuk ez.

Euskaingintza

Euskararen mundua eraikitzea bideratutako jardunbidea. Euskaragintza ere esaten zaio. Euskararen aldeko aktibismo hutsari edo mobilizazioari egin ahal dio erreferentzia, baina, orokorrean, euskaraz bizitzeko ahalegina ez ezik euskararen alde lan egiteko konpromisoa ere adierazten duten kontzientzia, borondate eta proiektuen batura da.

Herrigintza

Demos building, herri eraikuntza. Eraikuntza demokratikoa. Euskal gizartea egituratzeko eta antolatzekeo prozesu demokratikoa, naziogintzaren eta estatugintzaren aurrekoa. Borondateen batura.

Naziogintza

Nazio eraikuntza (nation building). Nazio identitatea egituratzea hura indartzeko, kohesionatzeko eta berresteko politika transbertsalen bidez. Neurri handi batean, eraikuntza sinbolikoa da, baina

materiala ere bada, eta arlo ekonomikoarekin ez ezik arlo ekonomikoaren eta sozialarekin ere loturik dago. Prozesu politikoa ere bada.

Estatugintza

Estatu burujabearen eraikuntza. Mundu anglosaxoian “nazio eraikuntza” kontzeptuarekin nahasten da. Funtsean, estatugintza euskal boterearen eraikuntza materiala da, estatu egituren antolaketa. Praktikan, Euskal Herriaren erakundetze politiko-instituzionala litzateke, trinkotze juridiko eta normatiboa. Desberdintasun handi bat dago naziogintzaren eta estatugintzaren artean: subiranotasuna osoaren helburua.

Estatugintza formala

Estatugintza formalak independentzia formala du lanabes. Independentzia formala trinkotze juridikoari deritzogu, status juridiko-politikoaren eguneratze prozesuen bidez gauzatzen dena, eta espainiar eta frantziar estatuarekin aldeberatasunean zein sezesio prozesuen bidez gerta daitekeena. Estatu burujabea arau juridiko-politikoaren bidetik eraikitzea, mundu zabalean eta bereziki Europan azken aldi honetan izan diren desafekzio edo sezesio prozesuen esperientziak kontuan hartuz.

Estatugintza ez-formala

Estatugintza ez-formalak independentzia materiala du lanabes. Euskal Herria autoeratzeko duten praktika autozentratu askotarikoak barnebiltzen dira dimentsio honetan, herrigintza eta estatugintzaren arteko mugak lausotuz. Egungo fase politikoan estatugintza ez-formalaren dimentsio honek garrantzia berezia hartzen du, aurrez esan bezala, burujabetza prozesuak autoafirmazioaren eta autoeraketaren estadioetan ezinbesteko duen herri ikuspegia artikulatzen laguntzen baitu. Euskal Herriaren kohesio politiko eta sozioekonomikoa indartzeaz gain, birsortze eta erreproduzio sinbolikorako (herri-gogoa, nazio kontzientzia) tresna da estatugintza ez-formala.

Herri-boterea

Herriaren Boterea, korrante marxista eta neomarxistek asko garatu duten kontzeptua. Beste definizio bat ere badu: sozialismoaren eraikuntza demokrazia parte-hartzaile edo protagonikoaren bidez. Herri boterearen bidez, planifikatzeko, aurrekontuak egiteko eta erabakiak hartzeko funtzioak arian-arian transferitzen zaizkio gizarteari, ordezkartzeko demokrazia hutsa dena demokrazia parte-hartzaile eta herritar bihurtuz. Venezuelako Errepublikak Bolibartarrak Herri Boterearen Lege Organikoa egin zuen, herri boterea honela definituz (hitzez hitz): “el ejercicio pleno de la soberanía por parte del pueblo en lo político, económico, social, cultural, ambiental, internacional, y en todo ámbito del desenvolvimiento y desarrollo de la sociedad, a través de sus diversas y disímiles formas de organización, que edifican el estado comunal”.

Hautabide independentista

Hautu independentistaren aldeko joera edo atxikimendua. Termino hau orain dela gutxi hasi da erabiltzen, eta batzuetan “prozesu” kontzeptuarekin nahasten da. Joera politiko bat denez, hainbat faktoreren menpe dago: erritmoak, intentsitateak, koiunturak... Hautabide estrategiko independentista honetan datza: egunen batean euskal herritarrak independentziaren helburu estrategikoaren alde jarriko lituzketen proposamenak, ekintzak, erabakiak eta gertaerak.

Aldebakartasuna (multilateral)

Berehalako ordainik espero gabe edo beste batzuekin (Estatuekin) akordio bat lortzea alde aurreko baldintzat jarri gabe norabide jakin batean aurrera egiteko erabaki propioa. Ez dagokio funtsean antolakunde bati edo besteri, (horri ere bai, jakina) baina bere garrantzi politiko funtsezkoenak herri dimentsioa du, Herri oso baten hautu eta jarduerari egiten dio erreferentzia. Aldebakartasunaz hitz egiten dugunean, aldebikotasunari kontrajartzen diogu. Hala ere, aldebakartasuna ez da berez ona, eta aldebikotasuna ez da beti txarra. Pentsa daiteke aldebakartasuna zerbait negatiboa, zaila edo bakarzalea dela, eta, era berean, konfrontaziorako eta isolamendurako eskaintza edo gonbidapen gisa uler daiteke. Behar-beharrezkoa zaigun gehiengo sozial eta politiko bat seduzitu edo geureganatu behar dugula kontuan izanik, oso kaltegarria da hori. Gainera, guztiz aldebakarrekoak diren prozesuek bi bando sortzen dituzte hasiera-hasieratik, “besteari” pisu espezifiko handia emanez, baina, une zehatz batera iritsita, ezin diote “besteari” leporatu aldebakarreko prozesuak aurrera ez egitearen erantzukizuna. Labur esanda, aldebakartasunak (aldebakarreko erabakia) impasse egoerak desblokeatzen eta posizio politiko batzuk indartzen lagun dezake, baina erabateko aldebakartasuna ez da existitzen eta azken batean perspektiba da agintzen duena. Guk aldeztzen dugun aldebakartasuna multilateral da aldi berean. Hala, esaterako, Ezker Abertzaleak estrategia aldatzeko hartu duen erabakia aldebakarrekoa izan da, alde aurretik Estatuarekin inolako akordiorik edo ordainik hitzartu gabe hartu baita, baina, era berean, Euskal Herriko beste eragile politiko batzuekin eta nazioarteko komunitateko aliatuekin eta eragileekin izandako elkarriketa etengabeen ondorioz hartutako erabakia izan da. Hau da, prozesu multilateral ere izan da, gertaera bat aldebakarrekoa eta multilateral izan ahal delako aldi berean. Euskal prozesu politikoaren aldebakartasuna “gure ustetan” Estatuarekin hasiera batean hartuko duten jarreraren arabera definitzen dugu nagusiki. Beraz, hasieran eta ibiltzen hasteko unean aldebakarrekoa da, baina funtsean multilateral da. Euskal Herriatik Euskal Herriarentzat abiatutako prozesua den neurrian, definizioz eta funtsean prozesu multilateral da. Izan ere, Ezker Abertzaletik edo EH Bildutik harago, prozesura bildu nahi ditugu beste kolektibo, eragile eta norbanako batzuk ere, jatorri eta ideologia desberdinetakoak. Halaber, multilateral da euskal lurralde guztien arteko harremanen eta interakzioen batura delako (EAE, NFE, Ipar Euskal Herria). Prozesu horretan gune, subjektu eta erritmo ezberdinak egongo dira, eta harremanak izango ditugu Estatuarekin beste sektore batzuekin, nazioarteko komunitateko kolektiboekin eta norbanakoekin, Estaturik gabeko nazioekin, beste nazio-estatu batzuekin... Ez da eta ezin da izan erabat aldebakarrekoa, eta beti aldebakarrekoa ere ez, denbora izango baitugu ikusten joateko zer-nolako jarrera hartzen duten Estatuak, Europar Batasunak, Nazio Batuek..., eta azken emaitza nazioarteko onarpena izan behar delako. Bide orria aldebakartasunez abiatzen da, Estatuaren zain egon gabe, baina ariketa “multilateral” da, Ezker Abertzaleak eta EH Bilduk ezin izango dutelako beren indarrekin soilik “aldebakartasunez” burutu.

Konfrontazio demokratikoa

Euskal Herrian prozesu demokratiko bat aurrera eramateko prest dagoen gehiengo sozial bat lortutakoan, gehiengo sozial horrek aurre egin beharko lieke prozesua eragotzi nahi duten indar instituzional, politiko eta ekonomikoei. Horri esaten diogu konfrontazio demokratikoa, eta hiru helburu ditu: indarrak batzea, hegemonia irabaztea eta Euskal Herria subjektu gisa onartua izatea. Horregatik, konfrontazioa Espainiako eta Frantziako estatuen aurka egin behar da. Iraultza demokratikoari lotutako kontzeptua da.

Iraultza demokratikoa

Latinoamerikako prozesuetan oso erabilia den kontzeptua. Haren mamia hauxe da: ezinbestekoa da eraldaketa demokratiko sakonak egitea benetako demokrazia lortzeko. Demokrazia ezin da hauteskundeetara eta ordezkaritza hutsera mugatu, beraz “Iraultza demokratikoa” prozesu eratzailleak eta gizarte-prozesuak definitzeko ahalegina da. Erreforma politikoaren ostean, eta batez ere azken hamarkadotan, prozesu demokratikoa edo Euskal Herriarentzako demokrazia aldarrikapen etengabea izan da gure herrian. 2012an hala aldarrikatu zuen Sortuk, gizartearen aurrean Ezker Abertzalearen alderdi berri gisa agertzeraren eraman zuen eztabaidaren ondoren. Sortuk “Iraultza Demokratikorako tresna” gisa aurkeztu zuen bere burua: “Iraultza egin nahi dugu. Sorturen iraultza demokratikoa eta nazionala da, Euskal Herriko eredu politiko eta soziala errotik aldatu nahi dugulako. Iraultza demokratiko nazionalak aurrera egin dezan, ezinbestekoak dira herri mobilizazioa, konfrontazio demokratikoa, desobediencia zibila eta borroka ideologikoa arlo guztietan”.

Autodefentsa

Talde sektorialek, marjinatu politikoek edo herri oso batek boterearen erasoan eta mehatxuen aurrean erabiltzen duten defentsa mekanismoa. Patronalaren, poliziaren, instituzioen edo estatuaren indarkeriari erantzuteko erabiltzen den indarkeria da. Printzipioz, metodoei dagokienez ez dago mugaturik.

Autogestioa

Interpretazio zail samarreko kontzeptua. Izan ere, liberalismoaren, marxismoaren nahiz anarkismoaren arloko hainbat ideia eta esperientziari aplikatzen zaie. Definizioz zehatzena lanaren arlokoa da: enpresaren kudeaketa langileen esku egotea. Hala ere, ñabardurek ere gehiago korapilatzen dute kontzeptuaren interpretazioa. Hala, esaterako, XX. mendean oso esperientzia ezberdinak izendatzeko erabili zen, hala nola liberalismoari dagozkion joera batzuk («enpresak demokratizatzea») eta Leninen antolakuntza tesien aurka zihoan kontsejismoa. Plano praktikoan, autogestioaren adibide nagusiak Jugoslaviako eta Aljeriako iraultzen ondoren bi herrialde horietan sortu ziren enpresak ditugu. Nolanahi ere, autogestioa kapitalismoaren ideari kontrajarritako ikusmoldea da. Europako sozialdemokraziak, esaterako, autogestioaren kontzeptua bereganatu zuen pentsamendu demokratikoa ekonomiara hedatzeko ikuspegi

deszentralizatzaile batetik. Gaur egun, autogestioak lotura handiagoa du joera burokraten kontrako sentsibilitatearekin kontzeptuaren adiera ideologiko globalarekin baino. Hala plano teorikoan nola plano praktikoan hutsune larriak eta oraingoz gaindiezinak dituen, autogestioa ez da gai izan merkatuaren joera nagusiak geldiarazteko. Horregatik, haren eraginkortasunak oso lotura estua du tamainarekin: komunitate txikiek soilik atera ahal izan dituzte aurrera autogestio esperientziak.

Insubordinazio politikoa

Kontzeptu honek oso lotura estua du bere antonimoarekin, hau da, dominazioarekin eta haren teoriarekin. Insubordinazioaren teoriaren muina dominazio eredu ideologikoekin haustea da. Ekonomiaren arloan, “insubordinazio eratzaillea” esaten zaio eredu ekonomiko kolonialekin hausteari, eredu horien oinarri nagusia, eta ia bakarra, kolonietako lehengaien ekoizpena baitzen.

Desobedientzia zibila

Arrazoi erlijioso, moral edo politikoengatik legea ez betetzea. Desobedientzia zibila pasiboa edo aktiboa izan daiteke, eta honela definitu ahal da: botereak edo gobernuak inplementatzen duen eta nahitaez bete beharrekoa den arau bat –gehienetan juridikoa– ez betetzea, lege hauste horrek zigorra dakarrelarik (isun administratiboa, inhabilitazioa, espetxea...). Zehazkiago, desobedientzia arau injustuen kontra erabiltzen dela esan liteke, baina, haren erabilera politiko eta soziala era askotara ulertu izan denez, horrelako definizio bat erabiltzeak desobedientziaren eremua murriztuko luke. Berez, desobedientziari ez dagozkio metodo edo forma jakin batzuk; agintearen kontrako plan zabal baten parte ere izan daiteke, herriaren matxinadarekin edo indarkeriaren erabilerarekin uztarturik. Ekintza politikoaren eremuan, praktika iraultzaile konbinatuaren eta demokrazia burgesaren joko klasikoaren artean kokatzen da. Batzuentzat onargarria da; beste batzuek, ordea, ez dute inola ere onartzen, jokabide hertsagarria iruditzen zaielako. Haren izaera gorabehera, legeari men ez egitearen bidez presioa egiteko metodo bat da, gogorragoa edo bigunagoa.

Hegemonia

Hegemoniaren eraikuntza zentzu konpartituaren apropiazioa da, artikulazio kultural bat funtsean. Identitate sozial batek hegemonikoa izatea lortzen du bere proiektua (ideiak, balioak, mundu ikuskera) kultura orokor bilakatzen denean, gizarteak naturalizat hartzen duenean. Finean, identitate partikularra unibertsal bilakatzen denean (edo partikularrak unibertsala ‘betetzen’ duenean). Gure proiektu politikoa hegemonikoa bihurtzen den neurrian eskuratu ahal izango ditugu botere eremuak (tartean gehiengoak instituzio desberdinetan). Artikulazio kultural hori borroka diskurtsibo bat da funtsean, antagonismo sozialak (identitateak) eraikiz gizartea polarizatzen duena. Etengabeko borroka diskurtsiboan gure posizio ideologikoak naturalizatzea bilatzen dugu (posizioen gerra). Beraz, diskurtsoaren eraikuntzari arreta berezia jarri behar zaio.

KAS Alternatiba

Franco hil ondoren Ezker Abertzaleak plazaratu zuen alternatiba taktikoa edo gutxienekoen programa politikoa. KASeko mahaia osatzen erakundeek landu zuten (ETAm, ETApM, LAIA, EHAS, LAK eta LAB), eta urtebete geroago EIA alderdia gehitu zen. KAS Alternatiba 1976ko uztailan onartu zen, eta abuztuaren 30ean aurkeztu, Iruñean. Programa taktiko gisa ulertuta, jarduera armatuari amaiera emateko ezinbestekotzat jotzen zen gutxieneko oinarri demokratikoa biltzen zuen. Hasieran, zazpi baldintza jasotzen zituen (geroago bost izango ziren): askatasun demokratikoak ezartzea, amnistia ematea, indar errepresiboak deuseztatzea, langile klasearen lan eta bizi baldintzak hobetzea, autodeterminazio eskubidea onartzea, behin-behineko Autonomia eguneratu bat ezartzea (Hego Euskal Herri osorako, botere politiko eta ekonomiko guztiakin, euskara ofiziala...) eta behin-behineko euskal gobernu bat eratzea (euskal herritarren mintzakide). 1978tik aurrera, bost puntura murriztu zen, koiuntura politikoak lehengo puntuetako batzuk betetzea ekarri zuelako. Hona hemen bost puntuok:

1. Amnistia, taktikoki euskal preso politiko guztien kaleratze gisa ulertuta.
2. Askatasun demokratikoak: alderdi politiko independentista guztiak legeztatzea beren estatutuak apaldu beharrik gabe.
3. Guardia Zibila, Polizia Armatua eta Cuerpo General de Policía zelakoa Euskal Herritik egotzea.
4. Herritar klaseen eta, batez ere, langile klasearen bizi eta lan baldintzak hobetzea.
5. Gutxienez honako atal hauek bilduko zituen Autonomia Estatutua:
 - Autodeterminazio Eskubidea onartzea, Estatu propio eta independente baterako eskubidea barne.
 - Ipar Euskal Herriaren eta Hego Euskal Herriaren arteko lotura nazionalak aitortzea.
 - Euskara Euskal Herriko hizkuntza ofizial nagusia izatea.
 - Garai hartako indar errepresiboen lekua hartuko zuten defentsa indar herritarrak Euskal Gobernuak sortzea eta soilik haren aginduetara egotea.
 - Euskal Herrian kuartelatutako indar armatuak Euskal Gobernuaren kontrolpean egotea.
 - Euskal Herriak edozein unetan beharrezkotzat jo zitezkeen egitura ekonomiko, sozial eta politikoak sortzeko botere nahikoa edukitzea.

Alternatiba hori laurogeiko urteetan KAS osatzen zuten erakundeen gutxienekoen programa izan zen (ETAm, HASI, ASK, JARRAI, LAB eta EGIZAN).

Alternatiba Demokratikoa

“Euskal Herriarentzako Alternatiba Demokratikoa”. Negoziazio politikorako oinarritzko proposamena, KAS Alternatibaren eguneratsetik sortua. Bi negoziazio marko bereizten ditu: bata, ETAREN eta Espainiako estatuaren artekoa; bestea, euskal herritar guztiei dagokiena, aukera guztien artean hautatu ahal izateko aukera jasoko lukeen mugarik gabeko prozesu demokratiko baten bidez. 1995eko apirilean aurkeztu zen, gatazka konpontzeko alternatiba gisa. Herri Batasunak 1996ko hauteskunde kanpainan zabaldu zuen, ETAK egindako eskaintzaren edukietako batzuk gehituta. Horren ondorioz, HBko Mahai Nazional osoa atxilotua, epaitua eta espetxeratua izan zen, Alternatiba Demokratikoaren bideoa zabaltzen saiatzeagatik. Geroago, Auzitegi Konstituzionalak epaia balio gabetu zuen.

Euskal Herriarentzako Alternatiba Demokratikoak aukera bat irekitzen zuen: Espainiako estatuak alternatibaren edukiak onartzen bazituen, ETAK su-etena iragarriko zuen, Euskal Herrian prozesu demokratiko bat abiarazteko. Baina funtsean Alternatiba Demokratikoak Herri gisa aldeakartasunetik jarduteko ikuspegi berri bat irekitzen du, estatu espainiarrarekin negoziazio esparrua gatazkaren ondorioei soilik mugatuta eta gure Herriaren autoeraketa eta egitasmo politikoen gauzapean maila herritarren erabakiaren menpean jarrita soil-soilik.

Honela, Alternatiba Demokratikoak bi marko bereizten zituen:

1. Estatuaren itundu beharrekoa:

Euskal Herria aintzakotzat hartzea. Autodeterminazio eskubidea lurraldeen batasuna aintzakotzat hartzea.

- Autodeterminazio eskubidea ez da jarrera politikorik, herri garen aldetik zor zaigun eskubide demokratikoa baizik. Eskubide hau noiz, nola eta zertarako gauzatzen den euskal herritar guztioi dagokigun arren, eskubidea halakotzat hartua izango dela segurtatu beharra dago. Euskal Herriak askatasun osoz bere etorkizuna erabaki behar duelako ezinbestean.
- Euskal Herria aintzakotzat hartua izan dadin egungo lurraldeen zatiketa gainditu beharra dago, lurraldeen batasuna onartu eta egungo muga instituzionalak suntsituz. Lurraldeen batasun nola gauzatu, Euskal Herria nola eratu eta antzekoak, Euskal Herriaren subirautezko erabakiak adieraziko du.

Euskal Herrian irekiko den prozesu demokratikoaren emaitza errespetatzea.

- Herriaren hitzari ezin mugarik jarri. Horrenbestez, prozesu demokratiko honen garapena eta emaitzak -direnak direla- errespetatuko dituela segurtatu behar du Estatu espainolak.
- Prozesu demokratiko hau bideratzeko gutxieneko baldintza da herritar guztiek bertan parte hartu ahal izatea, inongo presiorik jasan gabe. Beraz, prozesu demokratikoa gorputz dadin ezinbestekoa izango da amnistia orokorra erdiestea, preso guztiak kalera irten eta ihesi joandako guztiak osteratu itzulita.

- Era berean, ezinbestez neurriak hartu behar dira indar armatu espainolek prozesuan esku har ez dezaten.
2. Euskal herritarren artean eztabaidatu eta itundu beharrekoa:
- Euskal herritarrei bakarrik dagozkien arazoak erabaki ahal izateko hasi behar den prozesu demokratikoan, sindikatuek, elkarteek, mugimendu sozialek, alderdi politikoek, instituzioek eta, hitz batez, gizarte osoak hartu behar du parte, aukerak eta eztabaidarako marko egokiak zehaztuz.
 - Prozesu honetan zehar, gutxien-gutxienez gai hauek zehaztu beharko dira: autodeterminazio eskubidearen garapena (formulazioa, metodologia, aukerak, epeak, e.a.); lurraldeen batasunaren eraikuntza eta formulazioa; Euskal Herri guztien arteko harremanak; itundu behar den erakunde instituzionalaren eskuduntzak, aldez aurretik erabakitako inongo mugarik izan gabe; Euskal Herria euskalduntzeko plagintza; plagintza eta eredu sozio-ekonomikoa; Euskal Herriaren desmilitarizazioa (Armaden betekizuna, suntsiketa eta polizi indarren osaketa eta izaera); hezkuntza alorreko eskubideak; askatasun demokratikoak...

Anoetako Adierazpena

Batasuna (eta haren aurrekoa zen Herri Batasuna) ilegalizaturik, 2004ko azaroaren 14an Alternatiba Demokratikoaren egokitzapena aurkeztu zen Donostian, Anoetako belodromoan 15.000 pertsonaren aurrean egindako ekitaldi politiko batean. Gatazka konpontzeko eta gainditzeko proposamen bat plazaratu zen bertan. Zehazki, bi elkarrizketa mahai paralelo eratzea proposatu zen. Mahai batean ETA eta Espainiako Gobernua eseriko ziren, jarduera armatuaren bukaeraz aritzeko. Beste mahaietan alderdi guztiak eseriko ziren (instituzioetan ordezkaritzarik ez zeukatenak barne), auzi politikoari forma eta irtenbidea emateko. Beraz, proposamen hori Alternatiba Demokratikoaren egokitzapena zen, Alternatiba Demokratikoan ere bi errail proposatzen baitziren “Espainiako estatuarekin itundu beharrekoa eta euskal herritarren artean eztabaidatu beharrekoa” konpontzeko.

Gernikako Akordioa

«Bake bidean aterabide demokratikoen akordioa». Euskal Herriko 28 erakunde politiko, sindikal eta sozialek sinatu zuten, 2010eko irailaren 25ean. Akordioak honako eskaera hauek biltzen zituen: «ETAk nazioarteko komunitateak egiaztatzeko moduko su-eten iraunkorra eta aldebakarrekoa aldarrikatzea, jarduera armatua behin betiko uzteko borondatearen erakusle gisa», «inoren aurkako mehatxu, presio, jazarpen, atxiloketa eta tortura mota guztiak desagertzea, edozein dela ere pertsona horien jarduera edota ideologia politikoa», «eskubide zibil eta politiko guztien aitortza» eta «Alderdi Politikoen Legea indargabetzea».

ASK (Abertzale Sozialista Komiteak)

Euskal Herriko herri mugimendua osatzen zuten organismoetan koordinazio eta zuzendaritza lana egiteaz arduratzen zen KASeko erakundea. 1976. urtearen amaieran sortu zen, aurreko urteetako hainbat esperientzia jasoz, hala nola Herri Batzarrak eta borrokaren eremuan lan egin zuten hainbat kolektibo. Bere jardunean sektore berezituak antolatu zituen eta honek herri mugimendu eta antolakunde bakoitzarekiko gidaritza politikoa gehiegi zorrotzu zuen, dena alde aurretik antolakunde bertan egosteko joera sortuz eta ASKren beraren barne bizitza gehiegi espezializatuaz ere. HASI desegin zenean (1992), KAS blokea egokitzeko prozesu bat abiatu zen. 1994an, prozesu hori burutzeko, "Txinaurri" izeneko barne dokumentu bat idatzi zen. Bertan, kritika sakona egiten zitzaion ezker abertzalearen antolakuntza egiturari eta KASeko erakundeetako militanteak koadro gisa ezaugarritzeari. Prozesuaren bukaeran, ASK desegin zen eta Jarrai eta LAB KASetik atera ziren. Hortik aurrera, KASeko koadro guztien konbergentzia prozesu bat abiatu zen eta azkenean EKIN izeneko erakunde berri bat sortu zen.

Batasuna

Ezker Abertzalearen erakunde politikoa. 2001eko ekainean sortu zen, "Batasuna" izeneko eztabaida prozesutik. 7.000 militanteek parte hartu zuten eztabaida hartan, eta Euskal Herri osoa barnebilduko zuen erakunde bat sortzearen beharraz aritu ziren. Batasuna izango zen erakunde hori. Zazpi lurraldeetako militantzia biltzen zuen, Euskal Herriarrok eta Herri Batasuna ordezkatzuz. Erakunde berriaren helburu nagusia Euskal Herriarentzako Estatu propio bat sortzea zen, ezinbestekotzat jotzen baitzen globalizazioari aurre egiteko eta Euskal Herria Europan txertatzeko. Euskal Estaturanzko trantsizio prozesuan, Batasunak izaera nazionaleko egiturak bultzatuko zituen eta indarrean dagoen markoaren baliabideak baliatuko zituen. Batasunaren helburuen beste zutoin nagusia justizia soziala zen, sozialismoa, ikuspegi identitario batetik, euskal nazioaren berezitasunak txertatuz eta beste elementu aurrerakoi batzuk bilduz, hala nola ekologismoa eta feminismoa. Hirugarren zutoina gatazkari irtenbide demokratikoa eta globala bilatzea zen. Jendaurrean aurkeztu eta urtebete geroago, Batasuna legez kanpo utzi zuten (2003).

Bildu

EAK, Alternatibak eta ezker abertzaleak osatutako hauteskunde koalizioa (ezker abertzalea legez kanpo zegoen orduan). 2011ko udal eta foru hauteskundeetarako aurkeztu zen. Koalizioa 2011ko otsailean aurkeztu zen jendaurrean, eta honela definitu zuen bere burua: «Bildu ez da hauteskundeei begira sortutako subjektu politiko puntual edo epe laburreko bat. Luzaroan irauteko asmoa du, aldaketarako errealitate politiko eta sozial baten eraikuntzan gero eta pertsona eta eragile gehiago biltzen joateko eta, horrela, beharrezkoak diren eraldaketetan aurrera egiteko». Bilduren beste helburuetako bat hauxe zen: «Subiranismoak instituzioetan edukitzea gizartean daukan eta azken urte hauetan Alderdien Legeak lapurtu dion pisua».

Lobbyak

Termino anglosaxoa. Instantzia jakin batzuei presioa egiten dien talde sozial, politiko edo ekonomikoa. Nagusiki gobernuei egiten die presioa, baina ez haiei bakarrik. Etimologikoki, hitzaren jatorria Estatu Batuetako hotel handietako atartea da. AEBetan lobbyen jarduera guztiz legezkoa da eta legeak arautzen du, nahiz eta, berez, koakzioa erabiltzen duten presioa egiteko. Talde gisa, ezker abertzalean ere barne lobbyak edo presio taldeak egon litezke.

Armistizioa

Elkarren aurka borrokan ari diren aldeen arteko erasoak etetea. Armistizioa goi agintari militarrek sinatzen dute eta, beraz, ez dauka balio juridikoak. Bakea sinatzeak, ordea, balio juridikoa dauka. Armistizioa aldebikoa izaten da, hau da, aurrez aurre borrokan ari diren bi aldeek erabakitzen dute erasoak bertan behera uztea. Ez dakar gerra egoeraren bukaera, baina bakea prestatzea du helburu. Su-etenarekin alderatuta, hau da desberdintasun nagusia: su-etenak iraupen mugatua du, aldebakarrekoa edo aldebikoa izan daiteke eta, oro har, inflexio puntua izaten da konfrontazioaren baitan.

Batera

Ipar Euskal Herriko plataforma da, 2002ko abenduaren 14an Baionan-Euskal Herriko Merkataritza Ganbaran sortu zena. 110 elkarte, sindikatu eta mugimendu anitzek partehartzen dute. Lau aldarrikapen nagusi defendatuz:

- Euskararen koofizialtasuna Ipar Euskal Herrian.
- Lurralde Kolektibitatea (estatus berezi bat) ipar Euskal Herriarentzat.
- Laborantza Ganbera baten eraketa. Orain arte lortu den aldarrikapen bakarra da, 2005ean Euskal Herriko Laborantza Ganbera sortu baitzen.
- Ipar Euskal Herriarentzako unibertsitate bat.

2015eko urtarrilaren 9an, hiri elkargoa egituraketarako lehen urrats moduan bultzatuko zuela Baterak jakin zen. Ipar Euskal Herriarentzako lurralde kolektibitatea bat aldarrikatzen jarraitu arren, baina Frantziako lurralde erreformaren testuinguruan prefetaren proposamena onartzea erabaki zuten eta mobilizazioak iragarri zituzten

Bake Bidea

2012an Ipar Euskal Herrian sortutako mugimendu herritarra. Haren helburua Euskal Herrian bake prozesu bat bultzatzea eta Espainiako eta Frantziako estatuek gatazka kopontzeko gogorik ez dutela salatzea da. Hainbat elkarte eta sindikatutako pertsona ugariz osatuta dago (haien artean CGT eta CFDT), eta bere lehen ekimena euskal preso eta erbesteratuen eskubideen aldeko manifestazio bati babesa ematea izan zen. Hilabete bat geroago, 2012ko abenduan, Baionako Bake Foroa antolatu zuen, Lokarri eta Baionako Unibertsitatearekin batera. 2013ko urrian, berriz, Euskal Herriko Bakearen aldeko Foroa antolatu zuen, Mexikon. Bozeramaleak Anaiz Funosas eta Christophe Desprez dira.

Euskal Feminismoaz

Euskal Feminismoa, zapalkuntza patriarkarrari aurre eginez, emakumeen eskubideen alde borrokatzeko eta, finean, patriarkatua garaitzeko helburuz, ezker abertzaleko eta inguruko emakume feministek zapalkuntzaren hirukoitzaren inguruan egindako ekarpen teorikoek eta praktika politiko feminista izendatzeko terminoa dugu. Feminismo sozialistaren zenbait ekarpenetatik abiatuz, euskal emakumeen egoera eta, beraz, zapalkuntza patriarkarra aztertzeke, ulertzeke eta agerian usteko kontzeptu berriak proposatu ditu. Euskal Herriko patriarkatua garaitze aldera, borroka feminista jendartearen eraldatzeko helburua duten gainontzeko borroka iraultzaileekin artikulatzeko antolakuntza ereduak eratu ditu.

Patriarkatua

Hitzez hitz, "aitaren agintea" esan nahi du. Jendartearen antolatzeko sistema da, erlazio sozialak eta botere erlazioak sexuaren arabera ezartzen dituen. Patriarkatua kultura eta garai desberdinen arabera moldatzeko gaitasuna izan du, emakumeen zapalkuntza egoera iraunaraziz.

Mugimendu Feminista

Emakumez osatu eta emakumeek antolatutako mugimendu soziala da, sexu zapalkuntzarik gabeko jendarte askearen alde borrokatzen duena, eskubide indibidual eta kolektiboetan parekidetasuna eskuratu nahi duena. Honetarako, emakumeek pairatzen dituzten bereizkeri egoerak aztertu, salatu, eta emakumeen eskubideak aldarrikatzen ditu. Arlo pertsonalari dimentsio politikoa ematen dio: emakume bakoitzak bizi dituen sexu bereizkeri esperientziak ez dira esperientzia pertsonal soilak, esperientzia kolektiboak dira beren jatorria soziala delako. Patriarkatuaren jatorriari eta gainditzeari buruzko planteamendu, borroka molde eta antolakuntza eredu anitzak garatu ditu.

Borroka Feminista

Mugimendu feministak eta beste eragile batzuek patriarkatua indargabetzeko eta emakumeen eskubideak lortze aldera garatzen duten borroka edo diseinatutako ekintza artikulatuen multzoa.

Subjektu Feminista

Borroka feminista berea egiteaz gain, norabide honetan bere ekarpena modu aktibo batean garatzen duen eragilea edo norbanakoa. Ezker Abertzalea, eta bere militanteak, subjektu feminista bilakatzea izan da Prozesu Feministaren helburua.

Parekidetasuna

Berdintasunaren kontzeptua gaindituz eta sexuen arteko erlazio sozial berriak ikuspuntu feministatik definitzeko asmoz, euskal feminismoak proposatutako terminoa da. Pareko eta parekide hitzak, desberdinak izan arren, paralelo, antzeko, analogo, balio eta maila berekoak diren errealitateak izendatzeko erabiltzen dira. Bestetik, kideetasuna, kideen artean harremana edo lotura definitzeko erabiltzen da. Beraz, bi hitzak elkartuz, parekidetasuna, balio edo maila berbera dituzten pertsona desberdinen arteko harremana adierazteko, hau da, Euskal Herriko emakume eta gizonen artean eraiki nahi ditugun harreman sozial berriak adierazteko erabiltzen da.